**BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA, OÑATIKO UDALERRIKO 1, 2 eta 3. POLIGONOETAKO LANDA-LURZORUKO LURZATIAK MUGATZEKO**.

**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL DESLINDE DE PARCELAS DEL SUELO RURAL DE LOS POLÍGONOS 1, 2 y 3 EN EL MUNICIPIO DE OÑATI**

**AURKIBIDEA**


1.- SARRERA.....2
2.- ARAUDIA.....3
3.- HELBURUA.....3
4.- METODOLOGIA.....4
5.- INFORMAZIOA BILTZEA ETA ERABILTZEA.....4
6.- INFORMAZIOA PRESTATZEA ETA JABEEKIN BILERA EGITEA.....5
7.- AKORDIOEN JARRAIPENA EGITEA ETA DOKUMENTAZIOA JASOTZEA .....6
8.- DATUAK JASO ETA PROZESATZEA ..6
9.- AMAIERAKO DOKUMENTUAK ENTREGATZEA.....7
10.- LANDA-LURZORUKO LURSAILAK MUGATZEKO LAGUNTZAK ZURITZEA ..8


**INDICE**


1.- INTRODUCCIÓN..... 2
2.- NORMATIVA..... 3
3.- OBJETO..... 3
4.- METODOLOGIA ..... 4
5.- RECOPILACIÓN Y USO DE INFORMACIÓN ..... 4
6.- PREPARACIÓN DE INFORMACIÓN Y REUNIÓN CON PROPIETARIOS ..... 5
7.- SEGUIMIENTO DE LOS ACUERDOS Y RECEPCIÓN DE DOCUMENTACIÓN ..... 6
8.- LEVANTAMIENTO Y PROCESAMIENTO DE DATOS ..... 6
9.- ENTREGA DE DOCUMENTOS FINALES ..... 7
10.- JUSTIFICACION DE LAS AYUDAS PARA EL DESLINDE DE LAS PARCELAS DEL SUELO RURAL..... 8

**1.- SARRERA**

Gipuzkoako lurren % 90 landa-lurra da. Era berean, landa-lurzatien %80 esku pribatuetan daude eta jabetza oso banatuta dago, horregatik, batez besteko lurzatiaren tamaina txikia da.

Historikoki lursail horiek baserriari lotuta egon dira; hala ere, azken hamarkadetan Gipuzkoako gizartea hiritarragoa bihurtu da. Nekazaritzako eta basogintzako ustiategien titularren batez besteko adina handia da eta belaunaldi erreleboaren defizita ikusten da. Errelebo falta horrek lurzatien mugak ez ezagutzea dakar. Landa-lurzatien mugak ezagutzea funtsezkoa da finka horiek kudeatzen jarraitu ahal izateko; bai, nekazaritza ikuspegi batetik; bai, lurraldearen antolamenduaren ikuspegitik ere.

Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) Europar Batasunean nekazaritza-ekoizpenerako ematen diren dirulaguntzak kudeatzen ditu. 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, katastroaren antzeko partzelak identifikatzeko sistema berria ezarri zuen (CEE 3508/92 Erregelamendua). EAEn ezarritako informazio geografikoko sistemak, SIGPAC izenekoak, katastroko partzelarioa hartu du erreferentzia gisa. Beraz, azkenean, antzeko informazioa duten bi inbentario dira, antzeko eguneratze-mailan.

Landa-lurzatiak Nekazaritza Ustiategien Erregistroan sartzen dira (lursail bakoitzaren SIGPAC erreferentzia). Erregistro hori funtsezkoa da Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak nekazaritza eta basogintzaren arloko laguntzak eta baimenak izapidetzeko. Arestian adierazitako egoerak, askotan akatsak eta zailtasunak eragiten ditu espediente horiek izapidetzean, eta, beraz, guztiz komenigarria eta beharrezkoa da landa inguruneko lurzatien mugak eta titularrak eguneratzea.

Eguneratze hori egin ondoren, landa-katastroa eguneratzeko izapideak hasteko erabili ahal izango da. Katastroaren xedea da lurralde-jabetza

**1.- INTRODUCCIÓN**

El 90% de los terrenos de Gipuzkoa son rústicos. Asimismo, el 80% de las parcelas rústicas están en manos privadas y la propiedad está muy repartida, por lo que el tamaño de la parcela media es pequeño.

Históricamente estos terrenos han estado vinculados al caserío; sin embargo, en las últimas décadas la sociedad guipuzcoana se ha vuelto más urbana. La edad media de los titulares de explotaciones agrarias es elevada y se observa un déficit de relevo generacional. Esta falta de relevo supone un desconocimiento de los límites de las parcelas. El conocimiento de los límites de las parcelas rústicas es fundamental para poder seguir gestionando estas fincas, tanto desde el punto de vista agrícola como desde el punto de vista de la ordenación del territorio.

La Política Agrícola Común (PAC) gestiona las ayudas a la producción agrícola en la Unión Europea. A partir del 1 de enero de 2005 implantó un nuevo sistema de identificación de parcelas similares al catastro (Reglamento CEE 3508/92). El sistema de información geográfica implantado en la CAPV, denominado SIGPAC, ha tomado como referencia el parcelario catastral. Se trata, por tanto, finalmente, de dos inventarios con información similar a un nivel de actualización similar.

Las parcelas rústicas se inscriben en el Registro de Explotaciones Agrarias (referencia SIGPAC de cada parcela). Este registro es fundamental para la tramitación de las ayudas y autorizaciones en materia agroforestal por parte del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural. La situación anteriormente descrita, en muchas ocasiones, provoca errores y dificultades en la tramitación de estos expedientes, por lo que resulta del todo conveniente y necesario actualizar los límites y titulares de las parcelas en el medio rural.

Una vez realizada esta actualización, se podrá utilizar para iniciar los trámites de actualización del catastro de rústica. El catastro tiene por objeto determinar la

zehaztea, hainbat alderditan: ekonomikoak, sozialak eta, bereziki, landa-kontribuzioaren banaketa ekitatiborako, gaur egun landa-izaerako Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ).

propiedad territorial en varios aspectos: económicos, sociales y, especialmente, para el reparto equitativo de la contribución rústica, actualmente el Impuesto sobre Bienes Inmuebles de carácter rústico (IBI).

Landalur partzela baten titularra izateak ez du aitortzen higiezin horren jabetza izatea.

Ser titular de una parcela rústica no reconoce ser propiedad de dicho inmueble.

Landalur katastroa eta jabetza erregistroa koordinatuta egoteko beharra ezartzen du 13/2015 Hipoteka Legeak.

La Ley Hipotecaria 13/2015 establece la necesidad de coordinación entre el catastro rústico y el registro de la propiedad.

Egoera horren jakitun, eta ondorengo belaunaldiei informazio argia emateko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritzak ekimen bat jarri du abian landa lurzoru osoko lurzatien mugak digitalki jasotzeko. Egitasmo horren bidez, 2020-2030 aldian Gipuzkoako landa-lurren kokalekuak GPS bidez geoerreferentziatuta egotea lortu nahi da.

Conscientes de esta situación y con el objetivo de dar una información clara a las generaciones posteriores, la Dirección de Montes y Medio Natural de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha puesto en marcha una iniciativa para recoger digitalmente los límites de las parcelas de todo el suelo rural. Con este proyecto se pretende que las parcelas de rústica de Gipuzkoa estén georreferenciados mediante GPS durante el periodo 2020-2030.

Aipatu egitasmoak 2021ean izan zuen aurreneko dirulaguntza deialdia, 2022an jarraipena izan duena eta orain 2023koa argitaratu berri dena.

El citado proyecto tuvo su primera convocatoria de ayudas en 2021, que ha tenido continuidad en 2022 y que ahora acaba de publicarse en 2023.

**2.- ARAUDIA**

**2.- NORMATIVA**

Mugatzeko eta mugarriak jartzeko prozesua tresna juridikoa da, eta ondasun higiezin batek jabearen aurrean duen egoera material eta erreala argitzea du helburu.

El proceso de deslinde y amojonamiento es una herramienta jurídica que tiene como finalidad aclarar la situación material y real de un bien inmueble ante su dueño.

Kode Zibilean eta 15/2015 Legean ezarrita dago, baina prozedura hori judizioz kanpo ere egin daiteke, alderdien arteko akordio bakarrarekin.

Se encuentra establecido en el Código Civil y la ley 15/2015, aunque este procedimiento también se puede hacer de forma extrajudicial, con solo un acuerdo entre las partes

**3.- HELBURUA**

**3.- OBJETO**

Lanen helburua da: Oñatiko landalur katastroko 1º, 2. eta 3. poligonoetako lurzatien mugak eta mugarriak identifikatzea. Identifikazio lanak mugakideen arteko akordioaren bidez eta altxatze topografikoaren bidez

La finalidad de los trabajos es: identificar los límites y mojones existentes de los polígonos 1, 2 y 3 del catastro de rústica de Oñati. Los trabajos de identificación se realizarán mediante el acuerdo entre colindantes y el levantamiento topográfico

egingo dira.

Jasotzen eta lantzen den informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Katastro Zerbitzuari helaraziko zaio, landalur katastroko mugak zuzendu ahal izateko oinarri bezala.

**4.- METODOLOGIA**

Helburua betetzeko fase hauek aurreikusten dira:
 Informazioa biltzea
 Informazioa prestatzea eta jabeekin bilera egitea
 Akordioen jarraipena egitea eta dokumentazioa jasotzea
 Datuak jaso eta prozesatzea
 Amaierako dokumentuak entregatzea

Proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren dirulaguntza deialdira aurkeztuko da, beraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-lurzoruko lursailak mugatzeko laguntzen oinarri arautzaileen 10. artikuluak "*onuradunen betebeharrak*" xedatutakoa bete beharko da (2023eko maiatzaren 10eko GAO, 89 zk.)

**5.- INFORMAZIOA BILTZEA ETA ERABILTZEA**

Udalak udal-arduradun bat izendatuko du, landa-inguruneari eta bertako biztanleei buruzko esperientzia eta ezagutza izango dituena.

Proiekturako kontratatutako enpresak Udalarekin lankidetzan, landa-lursailen jabeekin komunikatu beharko du, eta honako alderdi hauek ezagutu beharko ditu:

 Landa-lursailen mugaketan parte hartzeko interesa duten ala ez.
 Bere lurzatia mugatzen duten mugak eta mugarriak ezagutzen dituen ala ez, eta, hala bada, muga eta mugarri horiek identifikagarriak eta lursailean irisgarriak diren ala ez.
 Lurzatia mugatzen duten mugakideekin eta mugarriekin adostasunik dagoen ala ez.

de las parcelas.

La información que se recoja y se elabore será trasladada al Servicio Catastral de la Diputación Foral de Gipuzkoa como base para la corrección de los límites catastrales de rústica.

**4.- METODOLOGIA**

Para cumplir el objetivo se contemplan las siguientes fases:
 Recopilación de información
 Preparación de información y reunión con propietarios
 Seguimiento de los acuerdos y recepción de documentación
 Levantamiento y procesamiento de datos
 Entrega de documentos finales

Este proyecto se presentará a la convocatoria de subvención del Departamento de Promoción Económica Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por lo que se deberá cumplir lo indicado en el art. 10 "obligaciones de las entidades beneficiarias" de las bases reguladoras de las ayudas para el deslinde de las parcelas del suelo rural del Territorio Histórico de Gipuzkoa (BOG de 10 de mayo de 2023, nº 89)

**5.- RECOPILACIÓN Y USO DE INFORMACIÓN**

El ayuntamiento nombrará un responsable municipal con experiencia y conocimiento del medio rural y sus moradores.

La empresa contratada en colaboración con el ayuntamiento deberá comunicarse con los propietarios de las parcelas rústicas para recabar la siguiente información:

 Si tienen o no interés en participar en el deslinde de parcelas rústicas.
 Si conoce o no los límites y los mojones que delimitan su parcela y en caso afirmativo, si dichos límites y mojones son identificables y accesibles en el terreno.
 Si existe o no acuerdo con los colindantes de los límites y mojones que delimitan su parcela.

Udalak landa-katastroko lurzatien titularrak emango ditu, eta hilda dauden edo aurkitzeko moduan ez dauden titularren kontaktua ere erraztuko du.

El ayuntamiento facilitará los titulares de las parcelas del catastro de rústica, así mismo, facilitará la localización de los titulares que hubieran fallecido o no estuvieran localizables.

Prozesuak dirauen bitartean Udalak informazio-gune bat jarriko du katastroko titularrei arreta emateko, sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta, hala badagokio, mugaketekin sor daitezkeen arazoak jaso eta aztertzeko.

Durante todo el proceso el ayuntamiento habilitará un punto de información para atender a los titulares, con el fin de solventar las dudas que pudieran surgir y, en su caso, recoger y analizar los problemas que pudieran surgir con las lindes.

Kontratu honek datu pertsonalen tratamendua eskatzen duela kontuan hartuta, datu pertsonalak babesteko klausula bat sinatu beharko da. Hori guztia, SPKLren 9/2017 Legearen 35.1 artikulua eta 25. xedapen gehigarria, zeinaren bidez aplikagarria baita Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean, DBEO), Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (aurrerantzean, DPBEDBLO) eta gainerako araudia.

Teniendo en cuenta que el presente contrato requiere tratamiento de datos personales, se deberá firmar una cláusula de protección de datos personales. Todo ello en aplicación del art. 35.1 de la LCSP 9/2017 y la disposición adicional 25ª por la que resulta de aplicación el Reglamento (UE) 2016/679 General de Protección de Datos (en adelante, RGPD), la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales (en adelante, LOPDGDD) y demás normativa.

**6.- INFORMAZIOA PRESTATZEA ETA JABEEKIN BILERA EGITEA**

**6.- PREPARACIÓN DE INFORMACIÓN Y REUNIÓN CON PROPIETARIOS**

Kontratuaren esleipendunak jarduketen helburuak zabaltzeaz arduratuko da. Bide horretan, Udalarekin batera hasierako bilera batera deitu beharko ditu titular guztiak. Udalaren ardura izango da biltzeko lekua egokitzea.

El adjudicatario del contrato se encargará de difundir los objetivos de las actuaciones. En ese objetivo, junto con el Ayuntamiento, deberá convocar a todos los titulares a una reunión inicial. Será responsabilidad del Ayuntamiento acondicionar el lugar de reunión.

Bilera horretan, esleipendunak proiektuaren helburuak azaltzeaz gain, lurzatien mugak eta mugarriak zehazten saiatzeko eskaera egingo die titularrei.

En dicha reunión, el adjudicatario además de exponer los objetivos del proyecto, solicitará a los titulares que intenten definir los límites y mojones de las parcelas.

Titular bakoitzari bere izenean dauden landalur partzelen liburuxka emango zaio. Liburuxka horretan, landalur katastroko partzelak jasoko dira (deskribapen grafiko eta deskriptiboa), mugakide diren partzelak, begiz ezberdintzeko behar besteko erresoluzio eta eskalarekin agertzen direlarik.

Se entregará a cada titular un librillo de las parcelas rústicas a su nombre. En dicho librillo se recogerán las parcelas del catastro de rústica (descripción gráfica y descriptiva), con resolución y escala suficientes para diferenciar visualmente las parcelas colindantes.

Hasierako bilera horretan,

En esta reunión inicial, el adjudicatario

esleipendunak hartu-emanetarako kontaktua erraztuko die titularrei, gutxienez, telefono eta helbide elektroniko bat eskura jarri beharko ditu.

facilitará a los titulares el contacto para la interlocución, debiendo poner a su disposición, al menos, un teléfono y una dirección de correo electrónico.

**7.- AKORDIOEN JARRAIPENA EGITEA ETA DOKUMENTAZIOA JASOTZEA**

**7.- SEGUIMIENTO DE LOS ACUERDOS Y RECEPCIÓN DE DOCUMENTACIÓN**

Kontratuaren esleipendunak titularrei emandako liburuxken jarraipena egingo du. Gehienez 3 hilabeteko epean, titular guztiekin harremanetan jarri beharko da, eta emandako informazioaren “feed-back-a” jaso beharko du.

El adjudicatario del contrato realizará el seguimiento de los librillos entregados a los titulares. En el plazo máximo de 3 meses, deberá ponerse en contacto con todos los titulares y deberá recabar el “feed-back” de la información facilitada.

Jasotako informazioaren arabera, mugen adostasuna duten partzeletan, katastro-partzelen jasotze topografikoa egiteko lanak hasiko ditu. Adostasuna ez dagoen kasuetan, desadostasunak ebazteko arbitrajea egiten saiatuko da. Halaber, datuak hartzeko akordioak aurkeztu ez diren lursailen jarraipena egingo du. Gutxienez jabeen % 90aren datuak jaso beharko dira, ezinezkoa balitz, idatziz justifikatuta utzi beharko da, dagozkion arrazoiak azalduta.

De acuerdo con la información recibida, aquellas parcelas en las que tengan acuerdo con las lindes, se iniciarán los trabajos de levantamiento topográfico. En caso de desacuerdo, se procurará un arbitraje para resolver las discrepancias. Asimismo, realizará un seguimiento de los terrenos que no presentan un acuerdo en la toma de datos. Se deberán recoger, los datos de al menos el 90% de los propietarios, si no fuera posible, se justificará por escrito con los motivos oportunos.

Desadostasuna dauden kasuetan edo jabeekin hartu-emana izatea ezinezkoa izan den kasuetan, esleipendunak prozesuan jasotako informazioan oinarrituta, balizko partzela bakoitzaren mugak jasoko ditu amaierako dokumentuan.

En los casos de desacuerdo o en los que no haya sido posible el contacto con los propietarios, el adjudicatario, en base a la información recibida en el proceso, recogerá en el documento final los límites posibles de cada una de las parcelas.

**8.- DATUAK JASO ETA PROZESATZEA**

**8.- LEVANTAMIENTO Y PROCESAMIENTO DE DATOS**

Jasotze topografikoa egiteko lanak, administrazio pleguan gaitasun teknikoan ezarritako gutxieneko ekipo teknikoak egin beharko du.

El levantamiento topográfico deberá ser realizado mínimo por el equipo técnico establecido en el pliego de administración en el apartado de capacidad técnica.

Mendian topografia lanak egin aurretik, esleipendunaren ardura izango da mugakide bakoitzari deialdia egiteaz. Egindako deialdiaren froga-agiriak gorde beharko dira.

Antes de realizar los trabajos de topografía en el monte, el adjudicatario será el responsable de convocar a cada colindante. Deberá conservarse la documentación probatoria de la convocatoria realizada.

Katastro-partzelen jasotze topografikoa zehaztasun dezimetrikoarekin egingo da. Jasotzean, dauden mugarriak eta

El levantamiento topográfico de las parcelas catastrales será de precisión decimétrica. El levantamiento se realizará

jabeek adierazi nahi dituzten bestelako puntuak identifikatuko dira. Muga jarraituko da, eta posizio-puntuak hartuko dira linearen kiebroetan.

Topografiako ekipoei lanak egin bitartean indarrean dagoen jasotzean erabili beharreko ekipo bakoitza kalibratu/mantentzeko ziurtagiria eskatuko zaie. Ziurtagiri hori egindako dokumentazioan bertan sartu beharko da, baliozkoa dela justifikatzeko.

Altxatzearen ondoren, jasotako datuak nola prozesatu eta editatu dituen azalduko du, lurzatiaren ETRS89 sisteman geoerreferentziatutako planoa lortu arte.

**9.- AMAIERAKO DOKUMENTUAK ENTREGATZEA**

Lan guztia, formatu digitalean entregatuko da.

Informazio digitalean partikularren artean lortutako akordioaren dokumentuaren erreferentzia jasoko da, eta lortzen ez bada, arrazoiak adieraziko dira. Akordio edo desadostasun horiek mugaren arabera zehaztu beharko dira, eta horietako bakoitzean adierazi beharko da bi alderdien arteko adostasuna egon den, alderdietako batek bakarrik parte hartu duen edo bi aldeen arteko desadostasuna egon den.

Jasotako mugarrien eta puntuen ETRS89 erreferentzia-sisteman UTM koordenatuen zerrenda bat erantsiko da.

Gainera, jabe bakoitzari bere lursailen plano topografikoarekin koadernatutako liburuxka bat emango dio, non mugarri eta puntu garrantzitsu guztiak zenbakituta agertzen diren, bai eta beren jabetzak nabarmenduta ikusten diren ortoargazki bat ere; era berean, dokumentu bat erantsiko zaio marraztutako esparru bakoitzerako, katastroko lurzatia, azalera eta mugarrien eta jabeek nabarmendu nahi izan duten puntuen UTM koordenadekin (ETRS89 sistema). Partikularrei

identificando los mojones existentes y aquellos otros puntos que los propietarios consideren interesante reflejar. Se recorrerá la linde, tomando puntos de posición en los quiebros de la misma.

Se exigirá de los equipos de topografía, un certificado de calibración/mantenimiento de cada uno de los equipos a utilizar en el levantamiento que esté en vigor durante la realización de los trabajos, que deberá incorporarse en la propia documentación elaborada como justificación de la validez de la misma.

Tras el levantamiento, explicará cómo ha realizado el procesado y edición de los datos levantados hasta conseguir el plano de la parcela georeferenciado en ETRS89.

**9.- ENTREGA DE DOCUMENTOS FINALES**

Todo el trabajo efectuado se entregará en formato digital.

En la información digital se recogerá la referencia al documento de acuerdo logrado entre los particulares y en el caso de no lograrse se señalarán las causas.

Esos acuerdos o desacuerdos deberán especificarse por linde señalando en cada una de ellas si ha habido acuerdo por ambas partes, si solo ha participado una de las partes o si ha habido desacuerdo por ambas partes.

Se acompañará con un listado de coordenadas UTM en el sistema de referencia ETRS89 de los mojones y puntos capturados.

Además, entregará a cada propietario librillo encuadernado con plano topográfico de sus terrenos en los que aparecen todos los mojones y puntos importantes numerados y una ortofoto en el que se vean resaltadas sus propiedades; asimismo, se adjuntará un documento en el que se especifica para cada recinto dibujado, la parcela catastral, la superficie y las coordenadas UTM (sistema ETRS89) tanto de los mojones como de los puntos que los propietarios han considerado importante definir. La documentación

emandako dokumentazioa formatu digitalean ere egin beharko da, USB euskarrian, jabe bakoitzarentzat.

**10.- LANDA-LURZORUKO LURSAILAK MUGATZEKO LAGUNTZAK ZURITZEA**

4. atalean azaldu bezala, proiektu hau GFAk landa-lurzoruko lursailak mugatzeko laguntza deialdira aurkeztuko da.

Onuradun izanez gero, esleipendunak oinarri arautzaileen 12. artikuluak "Ordainketa eta justifikazioa" xedatutakoa betetzen lagunduko du. Hain zuzen, justifikazio horretan eskatzen den jarduera memoria entregatu beharko du, egindako ekintzak eta lortutako emaitzak biltzen dituena.

entregada a los particulares se habrá de realizar también en formato digital, en soporte USB para cada propietario.

**10.- JUSTIFICACION DE LAS AYUDAS PARA EL DESLINDE DE LAS PARCELAS DEL SUELO RURAL**

Tal y como se ha explicado en el apartado 4, este proyecto se presentará a la convocatoria de ayudas para el deslinde de las parcelas del suelo rural por parte de la DFG.

En caso de resultar beneficiario, el adjudicatario contribuirá al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 12 de las bases reguladoras "justificación y pago". En concreto, deberá entregar la memoria de actuación requerida en dicha justificación, en la que se indiquen las actividades realizadas y los resultados obtenidos.

2023ko ekainaren 20an

AITOR GUERENABARRENA OSA - 15384308E

Firmado digitalmente por AITOR GUERENABARRENA OSA - 15384308E
Fecha: 2023.07.12 12:41:48 +02'00'

Aitor Gerenabarrena Osa

Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen Teknikaria

Oñatiko Udala